Espediente-zenbakia: 2021024

Kontratazioaren helburua: SPRIri-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziari laguntza ematea Euskadiko industria-egituran deskarbonizazio-planak garatzeko eta ezartzeko garaian Klusterren Erakunde Dinamizatzaileen bidez.

Dokumentua: Preskripzio teknikoen plegua.

1. SARRERA

Aurrekariak

Europako Itun Berdea eta 2050 baino lehenago Europan klima mailako neutraltasuna lortzeko helburua dira garapen jasangarrirako adostasunak. Hori guztia, ordea, Europar Batasuneko jarduera eta politika guztiak elkarri zuzenean lotuta dauden ikuspegi holistikoarekin bakarrik lortu ahal izango da.

Europako Batzordeak **proposatutako Klimaren Europako Legeari** eta Europako Parlamentuaren, Europako Batzordearen eta EB-27ko gobernuek adostutako akordioari esker, 2050eko klima-neutraltasuneko helburu hori legeri bihurtuko da eta, hala, Europar Batasuneko politika guztiek helburu hori lortzen lagunduko dutela eta ekonomia eta gizarte arloko sektore guztiek klima-neutraltasunari ekarpena egingo diotela bermatuko da.

Ildo horretan, 2020ko martxoan berrikusi eta argitaratu zuten **Europako Estrategia Industriala** ezinbesteko tresna bihurtu da klima-neutraltasunera zuzendutako trantsizioak bideratzeko. Estrategiaren helburua da EBko industria aldaketaren, berrikuntzaren eta hazkundearen motor eta azeleragailu bihurtzea eta "ekosistema industriala" kontzeptua ezarri du laneko unitate gisa. Hala, Europako jarduera industrialaren % 80 jasotzen duten 14 ekosistema identifikatu dira.

Ellen MacArthur Fundazioak zehaztutakoaren arabera, zirkulartasuneko estrategia eta printzipioak aplikatzea funtsezkoa izan daiteke neutraltasun klimatikorako bidean aurrera egiteko. Hala, CO2ren isurpenak % 45 arte gutxi daitezke. Ildo horretan, Europar Batasuneko ekonomia modernizatzea bultzatzeko asmoz Batzordeak 2020an argitaratutako **Ekonomia Zirkularrerako Ekintza Planak** (materialen berrerabilera sustatzeko neurriak jasotzen ditu) berebiziko garrantzia izango du garapen ekonomikoari eta ingurumen-estrategiari dagokienez.

Bestalde, Estatu mailan, duela gutxi onartu duten **Klima Aldaketako eta Energia Trantsizioko Legeak** jasotzen ditu 2050ean Espainian neutraltasun klimatikoa lortzeko helburuak eta, horien artean, hauek nabarmen ditzakegu:

- Negutegi-efektuko gasen isurpenak gutxienez % 23 gutxitzea 1990eko datuekin alderatuta.
- Amaierako energia-kontsumoan, jatorri berriztagarriko energiak sartzea, gutxienez % 42ean(gaur egun % 20 ingurukoa da).
- Jatorri berriztagarriko energietatik abiatuta, gutxienez %74ko sorrera duen sistema elektrikoa lortzea (uneotakoa % 40koa da).

Legeak ezarritakoaren arabera, energia-trantsizioa jorratzeko plangintza-tresnak dira honako hauek: **Energiaren eta Klimaren Plan Nazional Integratua (PNIEC)** eta **Espainiako Ekonomiaren 2050erako Deskarbonizazio Estrategia**.

Euskadin, **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana ZTBP 2030** Euskadi digitalerantz, berderantz eta inklusiborantz trantsizioa bizkortzeko Eusko Jaurlaritzaren oinarrizko tresna da. ZTBP 2030ek **RIS3** espezializazio arloen bilakaera jasotzen eta Zeharkako Ekimen Bultzatzaileen kontzeptua barneratzen du. Horiek guztiak lagungarriak izango dira Euskadik **teknologiko-digital, energetiko-klimatiko eta sozial-sanitario trantsizio hirukoitzari** aurre egin ahal izateko.



Duela gutxi onartu duten **Eusko Jaurlaritzaren 2021-2024ko Garapen Industrialeko eta Nazioartekotzeko Garapen Planak** ikuspegi estrategiko berria definitu du; horri esker, industriaren kontzeptu zabala indartzen du eta Euskadik eta bertako egitura industrialak aurre egin behar dieten erronkei eta aukerei erantzuna ematea ahalbidetzen du. Plana energia-ingurumen arloko trantsizioak eta trantsizio digitalak baldintzatutako testuinguruaren baitan egin da; halaber, COVID-19aren hedapenak eragindako pandemiaren ondoriozko susperraldiak ere baldintzatu du.

Euskadi klima-aldaketaren aurkako borrokan erreferentziazko eskualdea da eta ekonomiaren deskarbonizazioko lehen postuetan dago Europa mailan. #RacetoZero ekimena osatzen duten 23 eskualdeetako bat da eta **KLIMA 2050 Estrategia** izenekoan klima-aldaketarekin lotutako helburu batzuk ezarri ditu honako taula honetan ikus dezakegun moduan:

Tabla 6.
Objetivos de la Estrategia Vasca de Cambio Climático del País Vasco 2050

Objetivo 1.	Objetivo 2.
Reducir las emisiones de GEI de Euskadi en al menos un 40 % a 2030 y en al menos un 80 % a 2050, respecto al año 2005. Alcanzar en el año 2050 un consumo de energía renovable del 40 % sobre el consumo final.	Asegurar la resiliencia del territorio vasco al cambio climático.

Ildo berean, **Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Estrategiak**, 2030erako ikuspegiarekin, ekonomia zirkularreko eredura zuzendutako Euskadiren trantsizioa bultzatzeko eta Europan erreferentziazko eskualde gisa posizionatzeko misioa du. Aldi berean, gainera, Euskadirako emaitza positiboak lortu nahi ditu hiru esparrutan: Euskadiko enpresen fakturazioa handitzea produktu zirkularragoetan 10.000 milioi eurora arte, ekonomia zirkularraren arloan 3.000 enplegu sortzea eta kontsumoari lotutako karbono-isurpenak % 26 gutxitzea.

Europa, Estatu eta Euskadi mailan zehaztutako deskarbonizazio-helburuak lortzeko, **ezinbestekoa da sektore pribatuaren inplikazioa lortzea**. Hala, beharrezkoa da aldaketarekin bat egin dezaten enpresei laguntzea eta, lehiakor izaten jarraitzeko, helburuak lortzeko ezinbesteko bidea dela ikusaraztea.

Euskadik bere politika industrialeko oinarrizko tresna eta Euskadiko enpresetan lankidetza arloko erantzunak egituratzeko funtsezko elementua du: **Klusterren Erakunde Dinamizatzaileak**.

90eko hamarkadaren hasieratik, Eusko Jaurlaritzaren Lehiakortasun Programa abian jarri izanarekin bat eginda, Euskadiko industria sektore nagusiek sektore mailako erakundeak sortu dituzte eta horiek sektoreko enpresen artean eta hirugarrenekin lankidetza teknikoa eta komertziala sustatzen duten, I+G+b arloa eta nazioarteko foroetako presentzia dinamizatzen eta babesten duten eta kluster bakoitzeko erronka estrategikoak lantzeko garaian kideen arteko lankidetza bultzatzen duten eragile bihurtu dira, ETEak indartzera bideratutako ikuspegi nabarmenarekin.

Horrekin lotuta, Klusterren Erakunde Dinamizatzaileak **eragile estrategikoak dira Euskadin ekonomiaren deskarbonizazioa dinamizatzeko**. Hala, enpresak bultzatuko dituzte karbono-aztarna kalkulatzera eta deskarbonizazio-planak ezartzera.

SPRI Taldeak koordinatzen du Euskadiko klusterren sarea. Gaur egun, 16 Klusterren Erakunde Dinamizatzaile ditu sareak:

- ACICAE
- Aclima, Basque Environment Cluster.
- AFM
- AFV

- BHC- Basque Health Cluster
- Euskadiko Elikaduraren Clusterra
- Energiaren Klusterra
- Paperaren Klusterra
- Eraikune
- Euskal Herriko Itsas Foroa
- Gaia
- Habic
- Hegan
- Mafex
- Siderex
- Mugikortasun eta Logistika Klusterra

2. KONTRATAZIOAREN HELBURUA

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren (aurrerantzean, "**SPRI**") Teknologia, Berrikuntza eta Jasangarritasun sailak, Trantsizio Estrategikoen sailaren bidez, Klusterren Erakunde Dinamizatzaileen bidez Euskadiko industria-egituran deskarbonizazio-planak ezarri eta garatu ahal izateko zerbitzuak kontratatu behar ditu.

Kontratuaren helburu diren jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan gauzatuko dira.

3. EGINGO DIREN JARDUEREN HELBURUAK ETA DESKRIBAPENA

Helburuak

Lizitazioaren helburua da Klusterren Erakunde Dinamizatzaileen bidez esleipendunak Euskadiko industria-egituraren deskarbonizazio-planak garatu eta ezarri ahal izateko zerbitzuak eskaintzea.

Erakunde lizitatzaileek proposatu beharreko ekintzen artean hurrengo ataletan jasota daudenak bildu beharko dira derrigor, sor daitezkeen beste batzuk baztertu gabe.

Kontratuaren xede diren jarduerak:

Plangintzak, gutxienez, fase hauek jasoko ditu, eta fase bakoitzerako lan hauek:

0. Lan-metodologia eta operatiboa.

1. 2050era begirako klima-neutraltasuneko politika, estrategia eta araudien eta horiek Euskadiko industria-egituran duten inpaktuaren azterketa.

2. Klusterren Erakunde Dinamizatzaileen karakterizazio-azterketa eta arrisku eta aukeren analisia deskarbonizazio-planak lantzeko garaian.

3. Klusterren Erakunde Dinamizatzaile bakoitzerako, bertako enpresen deskarbonizaziorako ibilbide-orri bat egitea (gida praktiko gisa), batez ere karbono-aztarnaren kalkuluan oinarrituta.

4. Klusterren Erakunde Dinamizatzaileei deskarbonizazio-prozesuan bertako enpresei babesa ematea ahalbidetuko dien metodologia definitzea. Metodologiak frogatuta egon beharko du, gutxienez 3 pilotu garatuta.

5. Aurreko faseetatik ateratako ezagutza Klusterren Erakunde Dinamizatzaileei transferitzea.

6. Proiektuko emaitzak jakinaraztea eta ikusgai jartzea.

0. Lan-metodologia eta operatiba ("0 fasea")

Lanak hastean, laneko metodologia eta proposatutako operatiba berrikusi eta zehaztuko dira. Horrek faseen, zereginen eta entregagaien egutegia jasoko du eta, beranduenera jota, kontratua formalizatzen denetik zenbatzen hasita, 2 asteko epean entregatu eta onartu beharko da.

1. 2050era begirako klima-neutraltasuneko politika, estrategia eta araudien eta horiek Euskadiko industria-egituran duten inpaktuaren ("1. fasea") azterketa.

Esleipendunak Europa, Estatu eta Euskadi mailan bultzatutako neutraltasun klimatikoko politiken eragina jasan duten sektore ekonomikoen azterketa egin beharko du. Azterketa horrek honako hauek jaso beharko ditu (baina ez da mugatzailea):

- 2050era begirako neutralitate klimatikoarekin lotutako politika, estrategia eta araudi nagusien (Europakoak, Estatukoak eta Euskadikoak) laburpena eta sektore ekonomikoetarako ezarritako eskakizunak: Europako Itun Berdea, Europako Estrategia Industriala, Ekonomia Zirkularreko Estrategiak, Klimaren Europako Lege

Proposamena, Negutegi-efektua duten gasen isurpenekin lotutako merkataritzako araudiak, Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Legea, ZTBP 2030, Industria Plana, 2050eko Klima Estrategia, Euskadiko Ekonomia Zirkularreko Estrategia eta abar.

- Horietan jasotako eskakizunak eta politikak, estrategiak eta araudiak aplikatzeko kronograma.

- Aurrez identifikatutako politika, estrategia eta araudien eragina jasango duten sektore ekonomikoen identifikazioa.

- Politikek, estrategiek eta araudiek sektore ekonomikoetan izango duten eraginaren inguruko lehentasunak ezartzea irizpide batzuen arabera; negutegi-efektuko gasen isurpenaren bolumena; lehiakortasunerako arriskuak (karbono-ihesaren aurreko zaurgarritasuna, inpaktu esanguratsua duten eta negozio-ereduan aldaketak egitea behartu dezaketen produktuen hornidura-katean sartuta egotea -hegazkintza, automobilgintza eta abar-); negozio-aukerak; mitigaziorako edo aldaketarako egokitzapenerako aplikagarriak diren legezko eskakizunak betetzeko beharra eta abar.

- Sektore horiek Euskadiko industria-egituran duten ordezkagarritasuna eta haien banaketa Euskadiko klusterren sarean.

- Enpresen eta Klusterren Erakunde Dinamizatzaileen artean Euskadiko ekonomiaren deskarbonizazioa bultzatzeko lagungarriak izango liratekeen elkarlan-harremanak ezarri ahal izateko klusterren arteko sinergiak aldez aurretik identifikatzea.

Azterketa horiek guztiak beranduenera jota kontratua formalizatu eta 3 hilabeteko epean amaituta eta onartuta egon beharko duen txostenean jaso beharko dira.

2. Klusterren Erakunde Dinamizatzaileen karakterizazio-azterketa eta arrisku eta aukeren analisia deskarbonizazio-planak lantzeko ("2. fasea") garaian.

Esleipendunak karakterizazio-azterketa egin beharko du Klusterren Erakunde Dinamizatzaile bakoitzerako eta horrek honako hauei buruzko informazio esanguratsua jasoko du: Klusterren Erakunde Dinamizatzaile bakoitzean ordezkatutako Euskadiko industriarako klima-aldaketaren eraginetatik eta Europako, Estatuko eta Euskadiko politiken aplikaziotik eratorritako artearen egoeraren arriskuak, aukerak eta azterketa.

Helburu nagusia da bazkide diren enpresei deskarbonizazio-planen ezarpena bultzatzea ahalbidetuko liekeen txostena Klusterren Erakunde Dinamizatzaile bakoitzarentzat eskuragarri jartzea.

Informazioaren bilaketa esparrua Euskadin lanean ari diren Klusterren Erakunde Dinamizatzaileetan ordezkatutako sektore industrialetan oinarrituko da, haietako bakoitzerako ahalik eta espezifikoena izaten saiatuta. Horrekin lotuta, kontuan izan behar da Klusterren Erakunde Dinamizatzaile bakoitzean klima-aldaketako estrategien, aplikazioaren eta egokitzapenaren aurrean beste egoera batean egon daitezkeen sektore ekonomiko ezberdinak egon daitezkeela ordezkatuta.

Txosten bakoitzean jaso beharreko edukien artean daude alderdi hauek (baina ez dira mugatzaileak):

- Klusterren Erakunde Dinamizatzailearen egoera: negutegi-efektua duten gasen isurpenarekin lotutako klusterraren egoera (jatorria, bolumena eta abar); ordezkatutako sektoreen joerak eta aurreikuspenak; karbono-aztarnaren kalkulua aplikatzearekin lotutako egoera; deskarbonizazio-planak aplikatzearekin lotutako egoera; gai honekin lotuta enpresan abian jarritako jardunbide egokien identifikazioa...

- Politikak, estrategiak eta araudiak: 1. fasean identifikatutako eta Klusterren Erakunde Dinamizatzaile bakoitzean aplikagarriak diren politika, estrategia eta araudien xehetasuna, Europa mailan 2050eko helburuarekin neutraltasun klimatikoa bultzatzeko asmoz bete beharreko legegintza arloko proposamen eta eskakizun espezifikoak detektatuta.

- Teknologia eta berrikuntza: irtenbide eta joera teknologikoen adibideak; I+G industrialeko proiektuak eta klima-aldaketara egokitzea eta hori arintzea helburu dutela frogatzea; Europan, Estatuan eta Euskadin garatutako eta Klusterren Erakunde Dinamizatzaile bakoitzerako eragileak eta esanguratsuak diren I+G industrialeko proiektuei buruzko informazioa.

- Merkatua, lehia eta finantzaketa: deskarbonizazio-planei aurre egiteko balio-kate aktiboen eta erreferentziazkoen adibideak (proaktibitatearen motibazio nagusiak); klima-aldaketara egokitzeko eta hori arintzeko irtenbideei buruzko bideragarritasun tekniko-ekonomikoaren azterketak; deskarbonizazio-planetan Klusterren Erakunde Dinamizatzailean presente dauden sektore ekonomikoetako erreferentziazko enpresei buruzko informazioa; deskarbonizazioari lotutako irtenbideak eskaintzen erreferentzia diren enpresei buruzko informazioa (produktuak eta zerbitzuak); neutraltasun klimatikorako trantsizioan enpresentzako finantza-inpaktuak definitzea; karbono-aztarnen, desakarbonizazio-planen eta haiei lotutako neurketen gaineko kalkuluak identifikatzea eta abian jartzea ahalbidetzen duten laguntza-programak.

- Kluster arteko sinergiak: sektore eta kluster ugarien arteko elkarrekintzen adibideak, Euskadin energiaren deskarbonizazioa bideratuko luketen lankidetza-lerro estrategikoetan sakondu ahal izateko.

16 txosten horietako bakoitza entregagai bat izango da. Txosten guztiek entregatuta eta onartuta egon beharko dute kontratua formalizatzen den datatik zenbatzen hasi eta hurrengo 6 hilabetetan.

3. Klusterren Erakunde Dinamizatzaile bakoitzerako, bertako enpresen deskarbonizaziorako ibilbide-orri bat egitea (gida praktiko gisa), batez ere karbono-aztarnaren kalkuluan ("3. fasea") oinarrituta.

Aurreko atalean Klusterren Erakunde Dinamizatzaile bakoitzerako jasotako informazioaren arabera, esleipendunak bere enpresetako deskarbonizaziorako ibilbide-orri bana proposatu beharko du Klusterren Erakunde Dinamizatzaile bakoitzerako.

Ibilbide-orri honek Klusterren Erakunde Dinamizatzaileetako enpresetarako ekintza-plana jaso beharko du. Plan horrek, alderdi hauek jaso beharko ditu, besteak beste (baina ez dira mugatzaileak):

- Kudeaketa klimatikoa: klima-aldaketaren aurkako borroka negozioaren estrategian barneratzeko egokiena den metodologia identifikatzea eta justifikatzea (merkatu-estrategia; lehiakortasuneko estrategia; ezarritako kudeaketa-sistemetan barneratzea; beste ekimen batzuekin integratzea -garapen jasangarriko helburuekin-, besteak beste).
- Neurketa: Klusterren Erakunde Dinamizatzaileko enpresen heldutasun mailaren arabera, karbono-aztarna kalkulatzeko egokienak diren tresnak identifikatu eta justifikatzea: karbono-aztarna kalkulatzea (Ihobeko kalkulu-orria, Mitecoko kalkulu-orria; ISO 14064; ingurumen-aztarna; Race to Zero, eta abar); ingurumen-aztarnaren kalkulua; aztarna hidrikoaren kalkulua; produktuaren ingurumeneko adierazpenak, besteak beste.
- Murrizketa: negutegi-efektuko gasak gutxitzeko Klusterren Erakunde Dinamizatzaile bakoitzerako eragingarrienak eta eraginkorrenak diren estrategiak identifikatu eta justifikatzea: energia-eragingarritasuna; energia berriztagarrien estrategia; enpresetako deskarbonizazio-planak; mugigarritasun jasangarriko planak; erosketa berdeko estrategiak bestea beste.
- Konpentsazioa: Klusterren Erakunde Dinamizatzaile bakoitzerako eragingarrienak eta eraginkorrenak diren negutegi-efektuko gasak konpentsatzeko estrategiak identifikatzea eta justifikatzea: isurpenen konpentsazioa; klima arloko reporting-a; neutraltasunaren ziurtagiria, besteak beste.

- Egokitzapena: Klusterren Erakunde Dinamizatzaile bakoitzerako eragingarrienak eta eraginkorrenak diren egokitzapen-estrategiak identifikatzea: ekodiseinua; I+G+b prozesu/zerbitzu jasangarri berrietan; lehengai alternatiboen eta balorizatuen erabilera; ekonomia zirkularreko estrategiak eta abar.
- Finantzaketa: aurreko puntuetan jasotako estrategiak ezartzeko lanetarako lagungarriak diren Europa, Estatu eta Euskadi mailako laguntza-programak identifikatzea.
- Ikusgai jartzea: prozesuen deskarbonizazioa modu sistematikoan lantzeko asmoa duten enpresek egindako lana aitortzen duten tresnak (sariak, aitorpenak eta abar) zehaztea.
- Kluster arteko sinergiak: Euskadiko ekonomiaren deskarbonizazio eragingarria bideratuko duten kluster arteko lankidetzako ildo estrategikoak identifikatzea.

Klusterren Erakunde Dinamizatzaile bakoitzerako gida bana (guztira, 16) garatuko da. Entregagaiak izango dira eta, kontratua formalizatzen den unetik zenbatzen hasita, hurrengo 8 hilabeteko epean amaituta eta onartuta egon beharko dute.

4. Klusterren Erakunde Dinamizatzaileei deskarbonizazio-prozesuan bertako enpresei babesa ematea ahalbidetuko dien metodologia definitzea. Metodologiak frogatuta egon beharko du, gutxienez 3 pilotu garatuta ("4. fasea").

Klusterren Erakunde Dinamizatzaileei Euskadiko industriaren deskarbonizazio-prozesuan enpresei babesa ematea ahalbidetuko dien metodologia definitu beharko du esleipendunak. Besteak beste, lan hauek garatzeko modua jaso beharko du metodologia horrek:

- Klusterren Erakunde Dinamizatzailearen baitan proiektua sustatzeko tresnak diseinatu eta prestatzea.
- Enpresa parte-hartzaileen lidergoa eta erakartzea.
- Klusterren Erakunde Dinamizatzailearekiko eta enpresa parte-hartzaileekiko metodologia eta logistika koordinatzea.
- Proiektuaren idazkaritza teknikoa garatzea: deialdiak, aktak, agertutakoen jarraipena eta kontrola, jakinarazpenak eta abar.
- Enpresa interesdunen egoeraren arabera, proiektua gauzatzeko plana eta kronograma zehaztea.
- Enpresa interesdunen abiapuntuko egoeraren diagnostikoa.

- Enpresa parte-hartzaileen artean jasotako gida abian jartzea ahalbidetuko luketen dinamizazio-sistematikak definitzea, garatzea eta abian jartzea.

- Gidako helburuak lortzeko Klusterren Erakunde Dinamizatzailearentzat eta enpresentzat beharrezkoak diren prestakuntza-dinamikak identifikatu eta definitzea.

- Enpresen aurrerapenaren inguruko jarraipena egiteko sistematikak zehaztea.

- Enpresen bilakaera neurtzeko baliagarriak diren jarraipeneko adierazleak proposatzea.

- Beharrezko materialak.

- Klusterren Erakunde Dinamizatzaileentzako aurrerapen- eta jarraipen-txostenak garatzea.

- Emaitzak bistaratzeko metodoak identifikatzea eta garatzea.

Gainera, esleipendunak Klusterren Erakunde Dinamizatzaileen artean lehentasunak ezartzeko proposamena aurkeztu beharko du proiektu pilotu pilotuak egiteko interes mailaren arabera. Lehentasun horiek hainbat irizpideren arabera ezarriko dira eta horien artean hauek egongo dira (baina ez dira mugatzaileak):

- Negutegi-efektuko gasen isurpenen bolumena.

- Lehiakortasuneko inpaktua.

- Arintzeko eta egokitzeko garapen teknologikoaren gaitasuna.

- Deskarbonizazioa lortzeko inbertsio-beharrak.

- Negozio-aukera berriak.

- Finantzaketarako sarbidea.

- Klusterren Erakunde Dinamizatzaileko enpresen heldutasun maila deskarbonizaziorako etapen arabera.

- Identifikatutako politiken, estrategien eta araudien eragina.

Esleipendunak gutxienez hiru proiektu pilotu garatuko ditu diseinatutako metodologia ezartzeko. Proiektu pilotuak Klusterren Erakunde Dinamizatzaile ugaritan garatuko dira eta horiek SPRIk aukeratuko ditu esleipendunak aurrez erabakitako lehentasunen arabera.

Proiektu pilotu bakoitzaren kasuan, bertan prestatutako eta erabilitako material guztiekin txostena garatuko da. Bestalde, egindako lanen, haien emaitzen eta fase horren ondorioen deskribapena jasotzen duen amaierako txostena garatuko da. Dokumentu horiek guztiak entregagaiak izango dira.

Metodologia, gehienez, kontratua formalizatzen den datatik zenbatzen hasi eta 9 hilabeteko epean entregatu eta onartu beharko da. Proiektu pilotuek, beranduenera jota, 2022ko abenduaren 31n amaituta egon beharko dute. Data hori izango da amaierako txosten eta materialak aurkeztu ahal izateko azken eguna.

5. Aurreko faseetatik ateratako ezagutza Klusterren Erakunde Dinamizatzaileei transferitzea ("5. fasea").

Esleipendunak aurreko faseetatik eratorritako ezagutza transferitzeko metodologia proposatu eta zehaztu beharko die Klusterren Erakunde Dinamizatzaileei.

Proposatutako metodologiak Klusterren Erakunde Dinamizatzaileek honako hauek egin ditzaketela bermatu beharko ditu (baina ez da mugatzailea izango):

- Oro har eta beren enpresetarako modu espezifikoan aplikagarriak izan daitezkeen eta klima-aldaketarekin lotutako politikak, estrategiak eta araudiak identifikatzea.
- Bazkide diren enpresen lehiakortasunerako politika horiek dituzten arrisku eta aukera orokorrak ezagutzea
- Klima-aldaketarekin lotuta artearen egoera ezagutzea.
- Enpresen deskarbonizaziorako prozesu eta etapak ulertzea.
- Karbono-aztarna eta deskarbonizazio-planak kalkulatzeko tresna egokienen inguruko erabakiak hartzeko gai izatea eta horiek guztiak identifikatzea.
- Enpresetan deskarbonizazio-plan eragingarriak ezarri ahal izatea.
- Bere konpromisoaren emaitza ikusgai jartzea.
- Informazio hori beren bazkide diren enpresei transmititzeko gai izatea.

Ezagutza Klusterren Erakunde Dinamizatzaileei transferitu ahal izateko, esleipendunak beharrezko jardunaldiak (ahal dela presentzialak) egingo ditu aurreko helburuak bermatzeko. Hala, honako hauek egiaztatu beharko ditu:

- Programa, hizlariak eta eduki teknikoa definitzea.

- Materialen garapena eta maketazioa.
- Jardunaldiaren hedapena eta komunikazioa.
- Parte-hartzaileak erakartzea.
- Jardunaldiaren antolaketa eta logistika.
- Jardunaldiaren garapena.
- Parte-hartzaileen asebetetzea ebaluatzea.
- Emaitzen txostena idaztea.

Jardunaldiak garatzeko beharrezko alderdiekin eta kontratazioekin lotutako gastu eta kudeaketa-lan guztiak esleipendunak hartu beharko ditu bere gain.

Transferentzia-jardunaldietan bete beharreko programak eta gonbidatu beharreko parte-hartzaileen zerrenda aldez aurretik balioztatuko ditu SPRIk.

Ezagutza transferitzeko diseinatutako metodologiak entregagai izango dira eta gehienez kontratua formalizatu eta 2 hilabeteko epean amaituta eta onartuta egon beharko dira. Dena den, lanaren faseetako aurrerapen mailaren arabera, gerora egokitzeko aukera egongo da. Klusterren Erakunde Dinamizatzaileen ezagutzaren transferentzia-jardunaldiak laneko fase ugarietako denborekin sinkronizatuko dira eta amaituta egon beharko dute kontratua formalizatzen den datatik zenbatzen hasi eta 10 hilabeteko epean. Hala, emaitzen txostena azken jardunaldia egin eta 2 aste geroago aurkeztu beharko da.

6. Proiektuko emaitzak komunikatzea eta ikusgai jartzea ("6. fasea").

Esleipendunak planteatutako fase ugarietan proiektuaren emaitzak ikusgai jartzea helburu duen komunikazio-plana definituko du. Hala, klusterren Euskadiko sareak eta haren bazkide diren enpresek ekonomiaren deskarbonizazioan duten konpromisoa agerian geratu ahal izango da.

Komunikazio-planak eta haren ezarpenak hurrengo helburuak bete beharko dituzte, beste helburu batzuk proposatzeko aukera baztertu gabe:

- Industriaren deskarbonizazioak sor ditzakeen ingurumen, gizarte eta ekonomia arloko inpaktuak ikusgai jartzea.
- Klima-aldaketaren eta deskarbonizazio-planei aurre egiteko beharraren aurrean ekintzak adosteko garaian Euskadiko enpresak sentsibilizatzea.
- Klusterren Erakunde Dinamizatzaileak sentsibilizatzea klusterretan deskarbonizazio-planei aurre egiteko garrantziarekin lotuta.

- Klusterren Erakunde Dinamizatzaileetako enpresak deskarbonizazio-gidak abiarazteko eta ezartzeko bidean bultzatzea.
- Proiektuaren aurrerapen eta emaitzak ezagutaraztea.
- Klusterren Erakunde Dinamizatzaileen eta bazkide diren enpresen deskarbonizazioko aurrerapenak ikusgai jartzea.
- Proiektuari atxikitako enpresen jardunbide egokiei balioa ematea.
- Kluster arteko lankidetza sustatzea enpresen artean elkarlana eta sinergiak bilatuta.

Horretarako, komunikazioko eta bistaratzeko planak tresna hauen garapena jasoko du proiektuaren fase ugarietan (baina ez da mugatzailea izango):

- Markaren irudia
- Prentsa-oharrak
- Prentsaurrekoak
- SPRIren, Klusterren Erakunde Dinamizatzaileen eta enpresen sare sozialetarako eta buletinetarako edukiak.
- Hedapenerako materialak: txostenak, jardunbide egokiak, gidak, infografiak eta abarrak.
- Klusterren Erakunde Dinamizatzaileen eta Euskadiko enpresen deskarbonizazio arloko konpromisoa bistaratzeko eta proiektuko etapa ugarien emaitzak hedatzeko ekitaldia(k).

Komunikazio-plana garatzeko eta bistaratzeko beharrezko alderdiekin eta kontratazioekin lotutako gastu eta kudeaketa-lan guztiak esleipendunak hartu beharko ditu bere gain.

SPRIk dibulgatu aurretik emango die sortutako materialei oniritzia.

Proiektuaren fase ugariak jasoko dituen 2021-2022ko komunikazio- eta bistaratze-planak kontratua formalizatu eta 2 hilabeteko epean entregatuta eta onartuta egon beharko du beranduenera jota. Plana laneko fase ugarien arabera egokituko da, gehienez ere kontratuaren amaiera-datara arte (2022ko abenduaren 31).

Entregagaiak

Proiektuaren baitan eskatuko diren gutxieneko entregagaiak aurreko ataletan jasotakoak dira, baina esleipendunak plegu honetan aipatzen ez diren eta haiekiko

balio erantsia gehitzen duten beste entregagai batzuk proposatzeko aukera izango du.

Adjudikaziodunak entregagaiak aurkezteko izango dituen epe partzialei dagokienez, proiektua abiarazteko hasierako bileran edo proiektua gauzatzen den bitartean zehaztuko dira.

Entregagaien ereduak, amaierako edukia eta informazioa aurkezteko formatua enpresa lizitatzaileek egin ditzaketen proposamenekiko irekita geratuko dira, baina betiere plegu honetan identifikatutako gutxieneko edukiak bete beharko dira. Horixe izango da, hain zuzen ere, jasotako proposamenak ebaluatzeko garaian kontuan hartuko den irizpideetako bat. Entregagaiek gaztelaniaz idatzita egon beharko dute, eta euskarazko laburpen exekutiboa gehitu.

Txosten eta dokumentazio guztiak formatu editagarrian entregatu beharko dira. SPRIk dibulgatu aurretik emango die sortutako materialei oniritzia. Material horien maketazio elektronikoak SPRIk zerbitzuaren hasiera modu espezifikoan zehaztutako patroi, irudi edo beste edozein modu espezifiko errespetatu beharko du. Esleipendunak hartu beharko du bere gain maketazioa eta argitaratze elektronikoa.

Adjudikaziodunak berak eginak izango dira eduki, grafiko eta irudi guztiak, eta, bestela, legezko jabeen idatzizko baimena eduki beharko dute, SPRIk geroago argitara ditzakeen dokumentuetan erabili ahal izateko.

Erabat zehaztuta egon ez arren, entregagaitzat jotzen da adjudikaziodunak egindako zernahi artxibo eta halaxe ipini behar dira kontratuaren arduradunaren eskura betiere entregagai nagusiak gauzatzeko laguntza zuzen edo zeharkako gisa baliatu badira. SPRIko kontratuaren arduradunak adierazten duen formatu editagarrian entregatuko dira fitxategi guztiak.

Era berean, SPRIren eskura ipini beharko dira proiektutik kanpoko dokumentuak, txostenak, artxiboak, azterlanak, datu-baseak, eta abar, baldin eta nolabaiteko ekarpena egin badute proiektuko entregagaiak gauzatzeko. Adjudikaziodunak behar bezala justifikatu beharko du artxibo horietako edozein entregatzeko ezintasuna, eta SPRIk onartu egin beharko du.

SPRIk egokitzat jotako behar bezainbeste bilera eskatu ahal izango dizkio esleipendunari.

Lizitazio honekin lotutako eskaintzek jarraian jasota dauden gutxieneko edukiak biltzen dituen memoria teknikoa jaso beharko dute. Eduki horiek aintzat hartuko dira ezarritako balorazio-irizpideak ebaluatzean.

Eskaintzaileak proposatutako Proiektuaren plangintza deskribatuko du Memoria teknikoak; plangintza hori zer fasetan garatuko den adieraziko da, eta kronograma baten bidez irudikatuko dira faseen arteko harremana, paraleloan egin beharreko zereginak eta bide kritikoa. Proposatutako fase bakoitzerako, honakoa zehaztuko da:

- Lan-metodologia eta proposatutako operatiboa.
- Entregagaiak eta/edo fase bakoitzeko emaitzak: edukien aurkibidea.
- Faseen, zereginen eta entregagaien egutegia.
- Ordukako eskaintza ekonomikoa eskatu den 3 kategoria profesionaletako bakoitzean erabiliko diren giza baliabideak, ordu kopurutan.
- Erabilitako metodologian edo entregagaien kalitatean eta edukietan egindako hobekuntzak, Pleguan ezarritakoarekin alderatuta.

4. PROIEKTUARI ESLEITUTAKO LANGILEEK IZAN BEHARREKO PROFIL PROFESIONALA

SPRIren Trantsizio Estrategikoen Sailak zuzenean gainbegiratuko du proiektuko lantaldeak egindako lana. Adjudikaziodunak beharrezko giza baliabideak esleitu beharko ditu, kontratuaren xede diren lanak kalitatez gauzatzen direla bermatzeko.

Kontratua behar bezala egikaritzeko, beharrezkotzat jotzen da lantaldeak, gutxienez, profil hauek izatea:

- Proiektuaren esparruan gutxienez 10 urteko esperientzia duen proiektuaren arduradun bat.
- Gutxienez 5 urteko lan-esperientzia duten bi aholkulari espezialista.
- Gutxienez 3 urteko esperientzia duten bi teknikari.

Modu positiboan baloratuko da taldeko kideren batek ingurumen arloko espezializazio teknikoren batean masterra, edo ingeniaritzako edo zientzietako titulazioa izatea. Era berean, modu positiboan baloratuko da dinamizazio-tekniken eta komunikazio arloko prestakuntza.

Era berean, balorazio positiboa jasoko luke lizitatzaileek gai honekin lotutako Europako edo nazioarteko arauetan oinarritutako ingurumeneko kudeaketa-sistemak izatea, komunitateko legeriak edo ziurtagiriekin lotutako eta kontratu honen helburu den zerbitzuaren prestazioan aplikagarriak diren Europako edo nazioarteko arauek xedatutakoa betez erakunde independenteek ziurtatuta (EMAS ziurtagiriak edo baliokideak) edota haien erakundearen karbono-aztarna kalkulatuta izatea.

Gainera, gutxienez, eta mugatzailea izan gabe, esleipendunak honako hauek bete beharko ditu:

- Euskadiko industria-sareko jarduera sektoreei lotutako ingurumeneko inpaktuen inguruko ezagutza ziurtatu.

- Azken urteotan proiektuaren helburu diren gaietan esparru publikoan eta pribatuan izandako erreferentziak ziurtatu.

- Plegu honetako helburu diren lanak garatzen esperientzia duten langileak dituztela egiaztatu.

Gainera, behar puntualen arabera, kontratatutako zerbitzua behar bezala gauzatzeko, proiektuan jende gehiago sartzeko konpromisoa hartuko du esleipendunak bere gain.

Langile horiek esleipendun enpresaren menpekoak izango dira. Inolako kasutan ere ez dute izango Eusko Jaurlaritzarekiko, SPRIrekiko eta/edo haien parte diren elkarteekiko lan-, kontratu- edo funtzionario-harremanik, ezta beste edozein motatako harremanik ere, ez kontratuak irauten duen artean, ez amaitzean.